



HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA TRATAMENDU ESPEZIALIZATUKO ZENTRORA GARRAIATZEA; EDUKIONTZIAK ETA HORIEN KOKALEKUAK GARBITU ETA MANTENTZEA; GAUZAKI HANDIAK BILTZEA; ETA KALE-BIDEAK GARBITZEKO ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAREN ESKAINTZA.

Udalbatzak 2012ko maiatzaren 31ko bilkuran hartutako akordioarekin bat, iragarki honen bidez prozedura ireki baterako deia egiten da ondoko zerbitzua esleitzeko: **“hiri-hondakin solidoak bildu eta tratamendu espezializatuko zentrora garraiatzea; edukiontzia eta horien kokalekuak garbitu eta mantentzea; gauzaki handiak biltzea; eta kale-bideak garbitzea.”** Kontratua arautze harmonizatupean burutuko da, eta esleipena hainbat irizpide erabiliz —besteak beste, ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza—. Hona hemen kontratuaren datuak:

1.- Erakunde esleipen-egilea: Gorlizko Udala.

2.- Kontratuaren helburua.

a) Xedearen deskribapena: “hiri-hondakin solidoak bildu eta tratamendu espezializatuko zentrora garraiatzea; edukiontzia eta horien kokalekuak garbitu eta mantentzea; gauzaki handiak biltzea; eta kale-bideak garbitzea”.

b) Kontratua burutzeko lekua: Gorliz.

c) Burutzeko epea: 2 urte.

3.- Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua.

a) Izapidetzea: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Arautze harmonizatupeko kontratua, hainbat esleipen-irizpide erabiliz.

4.- Lehiaketaren oinarrizko aurrekontua: Zenbateko garbia: 710.064,00 euro; BEZ, %8, 56.805,12 euro. Zenbateko osoa: 766.869,12 euro.

5.- Bermeak: Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

6.- Dokumentazioa eta informazioa lortzea:

a) Entitatea: Gorlizko Udala, Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 9:00etatik 13:00ak arte.

b) Helbidea: Eliz Plaza, z/g.

c) Herria eta posta-kodea: 48630-Gorliz.



d) Telefonoa: 94.677.01.93

e) Telefaxa: 94.677.58.07

7.- Bestelako baldintzak: Espainiarrak ez diren enpresek beren kaudimena egiaztatu beharko dute Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

8.- Dokumentazio-eskariak jasotzeko epea: 2012ko abuztuaren 10eko 13:00ak arte.

9.- Eskaintzak aurkeztea: 2012ko abuztuaren 17ko 13:00ak arte.

10.- Eskaintzak irekitzea: Gorlizko Udaletxean, lehiatzaile bakoitzari nahiko aurretiaz jakinaraziko zaizkien egun eta orduan.

11.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta gainerako baldintzak eta informazioa: Administrazio Hitzarkinen Orrietan ezarritakoaren arabera.

12.- Iragarkiaren gastuak: Esleipen-hartzailearen kontura, Hitzarkinen Orrien arabera.

13.- Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2012ko ekainaren 25ean.